EUSKARAREN FORU ZERBITZUA

# 2014-2017 PLAN ESTRATEGIKOA

SERVICIO FORAL DE EUSKERA

# PLAN ESTRATÉGICO

2014-2017



1

# SARRERA

# INTRODUCCIÓN

# 1. SARRERA

Lau urtetik gora badira 2010-2013 epe aldirako Plan Estrategikoari ekin geniola eta artean abisua ematen genuen ez zela zerotik hasten, erakundeekin batera Arabako gizarteak urteak baitzeramatzan euskararen normalkuntzaren bidean, abiadurak abiadura, aurrera doan bidean.

Azken lau urteotako xedea gizarte gero eta elebidunago bat lortzea izan da, baita eleanitzago bat ere, nola ez.

Bidean aurrera goaz, urratsez urrats norabide zuzenean abiatzen diren programak edo ekimenak jantziago bihurtuz marko partekatuan, partekatu barik baino:

- Arabako Kuadrilla guztietako euskara teknikarien sareak xede du Kuadrilla bakoitzean tokian tokikoari egokitzen zaizkion programa eta ekintzak garatzea, bakoitzaren ezaugarri soziolinguistikoak gogoan hartuz, beti ere elkarren arteko koordinazio estua zainduz.
- Administrazioetako Erabilera Planak abian dira Arabako Kuadrilla guztietan eta udalerri ia-ia guztietan hizkuntza paisaian eraginez, eta hiritar eta auzokideei arreta eta komunikazioa elebitan emanez.
- Kuadrillek eta udalerri nagusiek Euskara Biziberritzeko Plan Nagusi bana landu eta onartua dute dagoeneko.
- Hainbat aisia-enpresa, elkarte, aisia eta kirol begiraleri formazioa eskaini zaie begiraleak diren guneetan euskararen erabileraren sustapena erraztearren.
- Euskara ikastaroetan izena emateko kanpainak beharrezkoak dira , izan ere, euskalduntze premiak nolakoak halakoak beharko dira ikastaroak, beti ere, Arabako Lurralde Historikoko sakabanaketa geografikoa kontuan izanda.

# 1. INTRODUCCIÓN

Hace más de cuatro años que se inició la elaboración del Plan Estratégico para el periodo 2010-2013 y ya entonces apuntábamos que no se partía de cero, que la sociedad alavesa junto con las instituciones llevaba años en el proceso de normalización del euskera, proceso que no camina al ritmo de todos y todas, pero, bien es cierto, que camina.

Durante estos últimos cuatro años continuamos con el objetivo de conseguir una sociedad cada vez más bilingüe, y, como no, también más multilingüe.

Seguimos avanzando, quizás a pequeños ritmos, y con pequeños cambios, pero siendo en la misma dirección, adquieren más importancia cualitativa:

- La red de técnicos de euskera en todas las Cuadrillas de Álava, quienes trabajan en coordinación, para desarrollar programas y acciones adecuadas a cada Cuadrilla, teniendo en cuenta su singularidad sociolingüística.
- Los Planes de Uso en la administración están en marcha en casi todas los ayuntamientos y Cuadrillas alavesas, incidiendo en el paisaje lingüístico, en la atención bilingüe a la ciudadanía y en las comunicaciones bilingües a la hora de transmitirlas a la vecindad.
- Se han elaborado y aprobado en todas las Cuadrillas y en los municipios de mayor tamaño los Planes Generales de Promoción del Uso del euskera.
- Se ha comenzado a incidir en la formación a las empresas, asociaciones y monitorado de ocio, tiempo libre y deporte de cara a facilitar la promoción del uso euskera en los espacios con monitorado.
- Se continúa con la campañas de matriculación para los cursos de euskera, llegando a ofrecer cursos específicos dependiendo de las necesidades de euskaldunización.

- Arlo sozioekonomikoan, hasiak dira enpresetan euskara planak lantzen eta eragiten. Gizartea ari da euskararen balio erantsia aintzat hartzen bereziki herritarra elebitan artatzeko orduan.

- Eredu elebidunetako ikastetxeetako matrikulazioa gora doa, eta horrela eskolaren bidez, gazteria egunean-egunean gero eta elebidunagoa da. Araban aurten egin diren selektibitate froga gehienak euskaraz burutu dira.

Horiek horrela, adierazi beharra dago euskararen normalkuntza burutzeko asko falta dela. Alde handiak daude, euskarak eta gaztelaniak bizi duten gizarte garapenaren artean, biak hizkuntza Lurraldean eta EAEn koofizialak izan arren. Euskararen errealitatea aldakorra da beti, hiztunak aldatzen doazen neurrian, eta euskararen erabilera garatzeko estrategiek ere aldatu beharko dute. Hortik urratu beharreko bidea marrazten duten plan estrategikoak, izan ere, komunitate batean eratorriko den hizkuntza politika adieraziko baita bertan, tokian tokiko lurraldeko egokitzapenak eginda beti ere.

Hizkuntza Politikaren xede nagusia euskararen erabilera handitzea izanik, nabarmentzen da euskara jaso edo bereganatzeko prozesuan hobetzeko malgutasun neurria dagoela ikusten da honako hiru arloetan: familia transmisioa, euskarazko irakaskuntza eta helduen euskalduntzean.

Euskararen transmisioa oinarrizkoa da xede estrategiko guztietan, Araban bereziki, izan ere, elebidunen %70ek euskara bigarren hizkuntza gisa jaso dute, eta belaunaldi berriei euskara transmititzea euren eskuetan dago. 2011ko inkesta soziolinguistikoaren arabera aita edo ama elebiduna izanik heren batek (%36) euskara gaztelaniarekin batera transmititu du.

2011ko erroldaren arabera Araban 5 urtetik gorako biztanleriatik, alegia, 301.896 pertsonatik 173.868 elebakarrak dira, % 56,8.

Araban euskara gero eta gehiago erabiltzen da, nahiz eta portzentajeak txikiak izan. % 4,3k euskara gaztelania baino gehiago edo gaztelania beste

- En el ámbito socio-económico se ha comenzado a elaborar y promover los Planes de euskera en las empresas, la sociedad va tomando en consideración el valor añadido que supone la atención bilingüe a la clientela.

- La matriculación en los centros escolares en los modelos bilingües continúa en aumento, lo que facilita que gracias a la escuela la juventud sea más bilingüe cada día. Este año en Álava la mayoría de las pruebas de selectividad se han desarrollado en euskera.

Sin embargo, es preciso manifestar que falta mucho para alcanzar la normalización del euskera, todavía es claro el dispar desarrollo social que viven el euskera y el castellano –ambas lenguas oficiales del Territorio y de la CAV-.La realidad del euskera es siempre cambiante, en tanto en cuanto los hablantes cambiamos, por lo que las estrategias para el desarrollo del uso del euskera también han de cambiar. De ahí los planes estratégicos que dibujan las pautas a seguir, gracias a los cuales se vislumbra la política lingüística de una comunidad y su necesaria adecuación a cada Territorio.

Siendo el objetivo principal de la política Lingüística aumentar el uso del euskera, vemos que hay margen de mejora en muchos ámbitos: En el proceso de adquisición o adopción del euskera se distinguen tres ámbitos, la transmisión familiar, la enseñanza en euskera y la euskaldunización de las personas adultas.

La transmisión del euskera es fundamental en todos los objetivos estratégicos, sobre todo en Álava donde cerca del 70% de las personas bilingües ha adquirido el euskera como segunda lengua y está en sus manos continuar con la transmisión del euskera a futuras generaciones, y según la encuesta sociolingüística de 2011, siendo el padre o la madre bilingüe un tercio (36 %) ha transmitido tanto el euskera como el castellano.

Según el Censo de 2011, la población alavesa de 5 o más años asciende a 301.896 personas, de las cuales 173.868 son erdaldunes, es decir, el 56,8%.

En Álava el euskera se usa cada vez más, y en menor medida se usa solamente el castellano. No obstante, los porcentajes son muy pequeños todavía. El 4,3%

erabiltzen du (1991n %0,5 zen, eta 2006an %3,3.) Euskara erabiltzen du %8,3k nahiz eta gaztelania baino gutxixeago.

Argi dago euskararen ezagutza eta erabilera ez direla neurri berean hazi, erabilera %4,3an izanik. Logikoki komunitate elebiduna %46koa bada, erabilerak %4,3 baino handiagoa behar luke izan. Euskararen erabileran hainbat aldagai dira eragiten dutenak, eta gogoan izan beharreko kontua da oso: hiztunen kopurua, hiztunek duten hizkuntza gaitasuna edo erraztasuna eta hiztunek euskaraz hitz egiteko dituzten egokierak, hain zuzen, hiztun sarea izatea, hau da, familia, lagun eta auzokideak kalean, etxean, lanean edo ikastetxeetan hiztun izatea; azkenik, kontsentsuan oinarritu den hizkuntza bere egitea, hizkuntzen arteko oreka eta gizarte berdintasuna xede dituela.

Gogoan izan elebidun gehienek euskara etxetik kanpo ikasi dutela. Etxeko harreman gehienak gaztelaniaz dira, eta horrenbestez euskararen erabilera murrizten da, salbu eta seme-alabekiko harremanetan, non euskararen erabilerak pittin bat gora egiten duen. Eremu formaletan (lanean zein lagun artean) erabilera etxekoa baino handiagoa da.

Arabako administrazioan euskararen erabilera txikia da, erabilera planak eta elebitan artatzeko protokoloak izanda ere administrazio guztietan.

Gazteria da euskararen ezagutza handiena duen taldea, baina aisian eta kirolean oso azpitik dago. Ez dezagun ahaztu Araban euskaldun gehienak (% 74,8) euskaldun berriak direla, hau da, euskara bigarren hizkuntza gisa jaso dutela eta familian euskara erabiltzeko egoerarik apenas dagoela, kopuru eta jario txukunetan erabilera zailduz.

Arestiko gaiarekin batera kalitateaz hitz egin behar da, euskararen kalitateaz. Euskaraz hitz egin eta erabiltzeko era eroso eta errazean izan dadin hizkuntza elikatu beharra dago, euskarazko edukiz eta bitartekoz hornitu, euskal eragileak horretara

usa el euskera más o igual que el castellano. (en 1991 eran 0,5% y 3,3% en el 2006). El otro 8,3% usa el euskera, pero en menor medida que el castellano.

Como se ve, el conocimiento del euskera y su uso no se han incrementado en la misma medida donde el porcentaje del uso es del 4,3%. La lógica nos dice que si la comunidad bilingüe es el 46% el uso debería ser más alto que el porcentaje mencionado. Esta situación se debe a diferentes factores que inciden en gran medida en el uso del euskera y conviene tenerlo muy en cuenta: la cantidad de hablantes; la competencia o facilidad y opciones de los y las hablantes para hablar euskera, tener una red de relaciones vascohablante, es decir, que una gran parte de la familia, amistades, vecinos/as en la calle, en el centro de trabajo y en el centro escolar,… sean vascohablantes; y por último, la adhesión hacia la lengua alimentada por el consenso cuyo objetivo es el equilibrio entre las lenguas y la igualdad social.

Hay que tener en cuenta que la mayoría de bilingües ha aprendido el euskera fuera de casa. La mayoría de las relaciones del hogar son en castellano, y por tanto el uso del euskera en la familia disminuye notoriamente. Por tanto, el uso en los ámbitos formales (en el trabajo o con la cuadrilla) es mayor que en casa, aunque en la relación con los hijos e hijas el uso del euskera aumenta.

El uso del euskera en la administración alavesa es también mínimo, teniendo en cuenta que casi todas las administraciones cuentan con Planes de Uso y con protocolos de atención bilingüe.

Siendo la juventud el sector que más conocimiento tiene del euskera, el uso social del euskera en el ocio y en el deporte es todavía muy bajo, conviene recordar que en Álava la mayoría de los euskaldunes son euskaldun berris de adopción, en concreto el 74,8%, es decir que su primera lengua no es el euskera y que, por lo tanto, en la vida familiar tampoco lo usan cotidianamente, lo que dificulta su uso y lograr una consiguiente facilidad.

Relacionado con el tema anterior está la calidad del uso del euskera, para poder hablar y usar el euskera de forma cómoda y fácil, hay que alimentarlo mediante contenidos y recursos en euskera y a través de los agentes vascos que los crean y escasean

bideratuz. Lurraldean hurrengo jardunak ez baitira soberan euskaraz: komunikabideak, argitaletxeak, ikastetxeak, zientzia eragileak, artistak, kultur produktuen sortzaileak …

Gazteri elebiduna dugu eta eredu eta eduki propioak behar ditu hizkuntza praktika aberasteko, erabilera orok bi eremu jorratzen baititu, sortzailetasuna eta kontsumo zaletasuna. Horretarako euskararen kalitatezko sormena sustatu eta babestu behar da, halaber, euskararen kontsumoa.

XXI. mendean murgilduta, egokia da etorkizunera begiratuko duen plana taxutzeko ahalegina egitea. Araba eta bere erakundeak hornitu behar dira epe labur eta ertainean premiak eta xedeak zehaztuko dituen lan tresna batez, Arabako gizarteak horrela eskatzen baitu urtez urte euskararen erabileraren arloan. Iñaki Martinez de Lunak dioen bezala, "hizkuntza politika eraginkorra abiatzeko, legezkoa eta bultzatzailea, aurretiko bi lan daude: euskararen inguruko akordio zabala adostea eta gizartearen borondatea lortzea".

Garai batean euskarak Araban zuen joko zelaia aldatuz eta egokituz doa. Gaztelau elebakarrak zein atzerritarrak badute euskararekin zer irabazi gizartean ekantzeko balio dien neurrian, gune eta giro berrietara iritsi daitezke eta. Gero eta argiago dago euskara edo beste hizkuntza bat ikasten duenak bere ama hizkuntzari uko egin gabe hartzen duela beretzako hizkuntza berria, eta hizkuntza bere eginez gizarteak aintzat hartzen du hiztun berria, luzera begirako harreman txeratsuari lehen harria jarriz. XXI mendeko hiztun berriak ikasketan erakutsitako ahaleginaren bidez gune berriak irabazi eta aurreko belaunaldietarako pentsa ezinak zirudíten aukerak zabaltzen zaizkio, artean Araban euskara ikasterik izan ez zutenez. Beharrezkoa da aipatzea, Jon Sarasuak dioen gisan, euskara Arabako eta Euskal Herriko berezko hizkuntza dela, eta hiztunok hainbat hizkuntza izanda ere, euskarak, ordea, gu baino ez gaituela.

Horregatik, euskararen normalkuntzan aurrerapen kualitatibo eta kuantitatiboak lortzearren Arabako

en nuestro territorio: medios de comunicación, editoriales, colegios, agentes científicos, artistas, creadores de productos culturales…

Nuestra juventud bilingüe principalmente necesita de modelos y contenidos propios en euskera para enriquecer su práctica lingüística, ya que todo uso tiene dos ámbitos principales, uno es el de la creación, y el otro, es el consumo, por lo que se debe en primer lugar fomentar y proteger la creación de calidad en euskera y a su vez, impulsar el consumo en euskera.

Así pues, en pleno siglo XXI se echa de menos un esfuerzo de visión de futuro. Es necesario dotar a Álava y a sus instituciones de un método de trabajo que ayude a definir a corto y medio plazo las necesidades y objetivos que la propia sociedad alavesa, año tras año, viene pidiendo en el ámbito del euskera. Como comenta Iñaki Martinez de Luna, …*"para poder poner en marcha una política lingüística eficaz, legítima e impulsora, hay dos pasos previos: concertar un acuerdo amplio en torno al euskera y conseguir la voluntad de la sociedad."*

Los paradigmas con los que se relacionaba el euskera en Álava van mudando y adecuándose, tanto un castellanohablante de aquí como un inmigrante que desea integrarse en la sociedad de acogida, tienen algo que ganar con el euskera pues aumentan sus posibilidades de acceder a más espacios y ambientes. Es cada vez más claro que quien comienza a aprender euskera u otra lengua, se da cuenta que adopta otra lengua sin renunciar a la(s) suya(s), es él o ella quien adopta la lengua y la sociedad es quien le acoge, estableciendo con ellas una relación afectiva de carácter permanente. Hay que comentar que el nuevo hablante del siglo XXI es consciente que a través de su esfuerzo en el aprendizaje gana acceso a nuevos espacios y oportunidades inimaginables en anteriores generaciones, al no haber podido ellos y ellas aprender euskera en Álava en su momento. Es conveniente mencionar, como recuerda Jon Sarasua, que el euskera es la lengua propia de Álava y de Euskal Herria, y los hablantes tenemos varias lenguas pero el euskera sólo nos tiene a nosotros y nosotras.

Por ello, con el fin de lograr progresos cualitativos y cuantitativos en la normalización del euskera, se ha considerado necesario dar curso al segundo Plan

Foru Aldundiaren Euskararen Foru Zerbitzuaren bigarren Plan Estrategikoa abiatzea erabaki da.

Jarraian azaltzen den Euskararen Foru Zerbitzuaren Plan Estrategikoa Arabako gizartearen errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta landu da, herritarren eskubideak zaintzeko asmoz beti ere, eskubide horien baitan oinarrituko baitira Plan Estrategiko honen xede eta neurri zehatzak.

Plan Estrategikoak Arabako Lurralde Historikoa du eragin esparrua, hain zuzen, Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol saileko Euskararen Foru Zerbitzuaren eskuduntzako arloetan.

Planak lau urteko iraunaldia izango du, 2014-2017 bitartean, eta urtez urteko Kudeaketa Planek garatu eta zehaztuko dute.

Estratégico (PE) del Servicio Foral de Euskera de la Diputación Foral de Álava.

El Plan Estratégico del Servicio Foral de Euskera, que se presenta en las siguientes líneas, ha sido elaborado teniendo en cuenta la realidad sociolingüística de la sociedad alavesa y queriendo respetar los derechos de toda la ciudadanía, principios en los que se basarán los objetivos y las medidas concretas de este Plan Estratégico.

El Plan Estratégico comprende, dentro de su ámbito de influencia, el territorio histórico de Álava, y los ámbitos que son competencia del Servicio Foral de Euskera del Departamento de Euskera Cultura y Deportes de la Diputación Foral de Álava.

El plan tendrá una vigencia de 4 años, desde 2014 hasta 2017, y se desarrollará y especificará por medio de planes anuales de gestión.

2

# EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOA
# AGENDA ESTRATÉGICA DEL EUSKERA

## 2. EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOA

2014ko ekainaren 24an Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 2013-2016 Euskararen Agenda Estrategikoa onartu zuen 2014ko ekainaren 24ko batzarrean, Euskararen Agenda Estrategikoaren marko nagusia "Euskara 21. Itun berritu baterantz" dokumentua izanik, hain zuzen, XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak jaso zituena. Orain, 2014-2017 urte bitarterako Plan Estrategikoa ezartzerakoan Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politika berriaren ildoen markoa nondik nora joan daitekeen ikustea komeni da. Hona, beraz, bertatik ateratako hamalau ildo esanguratsu:

1. Euskararen ezagutza eta erabilera belaunaldi berrietan bermatzea.
2. Euskara ohiko hizkuntza izango duten arnasgune eta funtzioak zaindu, indartu eta hedatzea, euskararen belaunez belauneko transmisioa bermatzeko eta erreferentzialtasun soziala indartzeko. Azken batean, helburua ez baita euskararen ezagutza zabaltzea, besterik gabe, baizik eta euskal hiztunak sortzea.
3. Familia transmisioa bermatzea, oso bereziki 25 urte barru izango diren 30 urtez azpiko gazte elebidunek euskara ere izan dezaten etxeko hizkuntza.
4. Euskal hiztunen erkidegoa trinkotzea, euskararen erabilerarako sare operatibo presentzialak zein birtualak hedatuz eta indartuz.
5. Hiri edo herrigune handietan euskara erabiltzeko aukerak areagotzea, familia elebidunei, gazteei eta haurrei lehentasuna emanez.
6. Elebitasun pasiboa –gutxieneko helburutzat– helduen munduan areagotzea eta prestigioa ematea.

## 2. AGENDA ESTRATÉGICA DEL EUSKERA

El 24 de junio de 2014 se aprueba por el Consejo de Gobierno del Gobierno Vasco en sesión celebrada el 24 de junio de 2014 la Agenda Estratégica del Euskera 2013-2016. El marco de referencia de la Agenda Estratégica del Euskera es el documento "Euskara 21". Hacia un pacto renovado", por el que se recogieron las bases de la política lingüística al comienzo del siglo XXI, que tenemos a bien presentar de nuevo a la hora de establecer el Plan Estratégico 2014-2017, con el fin de dar una idea de las líneas que seguirá el Servicio Foral del Euskera, como son las 14 que a continuación se enumeran:

1. Garantizar el conocimiento y uso del euskera en las nuevas generaciones.
2. Cuidar, fortalecer y extender los espacios vitales y funciones en que el euskera sea lengua habitual, a fin de garantizar la transmisión intergeneracional del euskera y fortalecer su carácter de referencia social. En definitiva, el objetivo no es únicamente extender el conocimiento del euskera, sino conseguir aumentar el número de vascoparlantes.
3. Garantizar la transmisión familiar, atendiendo muy especialmente a que los jóvenes bilingües que dentro de 25 años estén por debajo de la treintena utilicen el euskera también como lengua familiar.
4. Fortalecer la comunidad, extendiendo y fortaleciendo redes tanto presenciales como virtuales de uso del euskera.
5. Incrementar las oportunidades de uso del euskera en los grandes núcleos urbanos, dando prioridad a las familias vascófonas, jóvenes y niños.
6. Fomentar y prestigiar entre los adultos –y como objetivo mínimo– el bilingüismo pasivo.

**7.** Euskarazko kultura kontsumoa indartzea, euskal kultura industria, ekoizle eta sortzaileekiko ikuspegi askatzaile batetik.

**8.** Euskara eta haren munduak etorkinengana hurbiltzea, hauen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko eta euskara erabilera-eremu demografikoki dinamikoetara hurbiltzeko xedez.

**9.** Euskaraz komunikatzeko estandarrak malgutzea eta aberastea, hiztun berrien adierazkortasunaren mesedetan. Zuzentasunaren irizpide bakarretik komunikagarritasunarenera eta adierazkortasunarenera igarotzea.

**10.** Hizkuntza eskubideak eremu publikoan aitortzeko ez ezik errespetatzeko bidean, euskara erabiltzeko aukerak bermatzea.

**11.** Euskararen erakargarritasuna lantzea eta era egokian proiektatzea. Proiektatzen duguna baino anizkoitzagoa da euskararen unibertsoa, eta are anizkoitzagoa egin beharra dugu, gizartearen pare anizkoitza izatera iritsiko bada.

**12.** Euskararen irudiari prestigioa ematea, kultura eta komunikazioaren alorreko lorpenak garbi proiektatuz, batetik, eta, bestetik, euskal gizartearen kohesiorako osagai ezinbestekoa dela praktikan eta diskurtso publikoan adieraziz.

**13.** Hizkuntzaren teknologiak sarerako euskarazko edukiak sortzea eta komunikaziorako sare birtualak era egokian baliatzea, euskararen normalkuntza eta erabilera aukeren mesedetan.

**14.** Hizkuntza politikaren inguruko akordiorik zabalena etengabe elikatu eta sendotzea, euskararen biziberritzea eta kohesio soziala estu lotuko diten itun berritu baten bila.

**7.** Fomentar el consumo cultural en euskera, desde una perspectiva emancipadora para las industrias culturales, productores y creadores vascos.

**8.** Aproximar el euskera y sus universos a los inmigrantes, a fin de facilitar su amplia y enriquecedora integración, así como acercar el euskera a ámbitos de uso demográficamente dinámicos.

**9.** Flexibilizar y enriquecer los estándares comunicativos en euskera, como método para favorecer la expresividad de los nuevos hablantes. Pasar de la corrección formal como criterio único al de la calidad comunicativa y expresiva.

**10.** Garantizar las oportunidades de uso del euskera en el camino hacia el respeto de los derechos lingüísticos, más allá de su mero reconocimiento público.

**11.** Hacer atractivo el euskera y proyectarlo de forma adecuada. El universo del euskera es más plural de lo que hace pensar la imagen que proyectamos, y debemos hacerlo aún más plural, de forma que alcance el mismo grado de pluralidad de la sociedad.

**12.** Prestigiar la imagen del euskera, proyectando con nitidez los logros culturales y comunicativos, por una parte, y, por otra, expresando en la práctica y en el discurso público que el euskera constituye un componente esencial de la cohesión social vasca.

**13.** Utilizar las tecnologías lingüísticas, crear contenidos en euskera para la red y explotar de forma adecuada las redes virtuales de comunicación, en beneficio de la normalización del euskera y del incremento de sus posibilidades de uso.

**14.** Nutrir y fortalecer permanentemente el más amplio acuerdo en materia de política lingüística, en pos de un pacto renovado que vincule íntimamente la revitalización del euskera y la cohesión social.

2011ko apirilean Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia berraztertzeko prozesuaren baitan, 101 adierazle zituen txosten berri bat aurkeztu zuen euskararen egoera eta garapenaren berri emanez. Agiri horietan oinarrituta Eusko Jaurlaritzak ESEP deritzona diseinatu du (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana), hurrengo hamar urteotako hizkuntza politikan hartu beharreko neurriak proposatzen dituena.

Aipatzea merezi du 2014-2017 Plan Estrategikoa lantzeko unean kontuan izan dela ESEP izeneko ekintza multzoen plana Arabako errealitate soziolinguistikora egokitzeko, 2014-2017 epe aldian garatuko diren ekintzen eraginkortasuna neurtuko duten adierazleak biltzen dituela.

En 2011 y dentro del proceso de revisión del Plan General de Promoción del Uso del Euskera (EBPN) la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco presentó en abril un informe sobre la situación y evolución del euskera, en el que incluía un total de 101 indicadores. Basándose en estos documentos el Gobierno Vasco ha diseñado el Plan de Accion para la Promoción del Euskera (ESEP), mediante el cual propone las medidas para la política lingüística que ha de aplicarse en los próximos diez años.

Cabe mencionar que a la hora de elaborar el Plan Estratégico 2014-2017 se ha tenido en cuenta dicho plan para adecuarlo a la realidad sociolingüística alavesa, y proponer indicadores que midan la eficacia de las acciones que se vayan a a llevar a cabo a lo largo del periodo 2014-2017.

3

# DATU SOZIOLINGUISTIKOAK
# DATOS INTERÉS SOCIOLINGÜÍSTICO

# 3. DATU SOZIOLINGUISTIKOAK

## 3.1. SARRERA

Soziolinguistika inkesta eta Soziolinguistika mapa dira, egun, Arabari buruz ditugun datu soziolinguistikoen iturri nagusia. Biek ala biek 2011ko argazkia eman behar digute. Ahalik eta daturik gaurkotuenak erabiltzen saiatu gara.

Merezi du lan bi horien arteko aldeak ondo finkatzea, esanguratsuak direlako oso. Izan ere, mapa soziolinguistikoak 5 urte eta gehiagoko biztanle guzti-guztiak hartzen ditu kontuan, eta horixe bera da bere abaintailarik handiena. Inkesta soziolinguistikoa, oso datu esanguratsuak ematen baditu ere, 16 urte eta gehiagoko biztanleen lagin bati egindako galdetegiaren emaitza da. Batetik kontuan hartu behar da adin-tarte mugatuagoa erabiltzen duela, eta bestetik, laginketa dela-eta, emaitzak are fidagarriagoak direla lurralde zabalago bat kontuan hartzen denean.

Hizkuntzen kale-erabileraren neurketak ere datu interesgarriak ematen ditu, nahiz eta kaleko erabilerara mugatu. VI. neurketak 2011. urtean egin zen, eta emaitzak argitaratu dira dagoeneko. Behaketa bidezko neurketa da.

Bestelako azterketak ere erabili ditugu Arabako datu soziolinguistikoen berri emateko: Eustaten datuak, Vitoria-Gasteizko Udalaren ikerketa gabineteak egindako azterketak, edota urte hauetan Euskararen Foru Zerbitzuaren enkarguz egindakoak (Soziolinguistika Klusterra) edota Euskararen Foru Zerbitzuak bilaturikoak (Habe, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila..).

## 3.2. DEMOGRAFIA

Arabako biztanleriak pilaketa eta polarizazioak bizi ditu neurri handi batean, izan ere, biztanleriaren hiru laurden ia hiriburuan bizi dira, Vitoria-Gasteizen. Gainerako 50 udalerrietatik, Laudio eta Amurrio

# 3. DATOS INTERÉS SOCIOLINGÜÍSTICO

## 3.1. INTRODUCCIÓN

Las principales fuentes de datos sobre la situación sociolingüística de Álava son el Mapa Sociolingüístico y la Encuesta Sociolingüística. Ambas deberían dar una fotografía de la realidad sociolingüística en el año 2011. Hemos utilizado los datos más recientes de los que disponemos.

Nos parece importante destacar las diferencias entre el mapa y la encuesta sociolingüística para entender los datos que aquí se exponen. El mapa sociolingüístico abarca a la totalidad de la población de la CAV de 5 o más años, y ese es, precisamente, su punto fuerte. La encuesta también aporta unos datos muy significativos, pero corresponden a un cuestionario realizado a una muestra de personas de edad igual o superior a los 16 años. Hay que tener en cuenta que corresponde a un intervalo de edad diferente, y que debido al tamaño de la muestra, pierde fiabilidad cuando queremos hablar de espacios inferiores al territorio histórico.

La medición del uso del euskera en la calle también es un estudio significativo, aunque se limita a datos sobre el uso en la vía pública. La sexta medición se hizo en 2011 y los datos están publicados. Se trata de una medición realizada a pie de calle por medio de observación directa.

También se han usado otro tipo de estudios para ofrecer información sociolingüística del Territorio: datos del Eustat, estudios realizados por el Gabinete Municipal de Estudios de Vitoria-Gasteiz, o bien el estudio realizado expresamente por el Clúster de Sociolingüística (CLST) a petición del Servicio Foral de Euskera de la Diputación Foral de Álava, y otros llevados por el propio Servicio de Euskera (Habe, Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura del Gobierno Vasco...).

## 3.2. DEMOGRAFÍA

La población de Álava presenta un alto nivel de concentración y polarización, ya que casi tres cuartas partes de la población reside en la capital, Vitoria-Gasteiz. De los 50 municipios restantes, solamente

dira 10.000 biztanletik gorako udalerri bakarrak, eta Agurain da 5.000tik gora dituena. 5.000tik behera biztanle dituen udalerrietan bizi da berriz biztanleriaren % 15.

### 3.2.1. Eskualdeen banaketa administratiboa

Zazpi eskualde administratibotan banatzen da Lurralde Historikoa, *Kuadrillak* edo *Taldeak* deituak. Foru Lurraldearen zatiketa XVI. mendekoa da, nahiz eta egungo banaketa 1983koa den, eta 1989ko Foru Arau batek emana datorren:

1. Aguraingo Kuadrilla: Lurralde historikoaren ipar-mendebaldean. Hiriburua Agurain da.
2. Aiarako Kuadrilla: Nerbioi ibaiaren arroko herriak biltzen ditu batik bat. Bertakoak dira Laudio eta Amurrio, Lurralde Historikoko bigarren eta hirugarren udalerri jendeztatuenak, hurrenez hurren. Hiriburua Laudio da.
3. Añanako Kuadrilla: Mendebalde eta hego-mendebaldean kokatua. Ebro ibaiaren inguruko zenbait haranek osatua da. Hiriburua Ribabellosa da.
4. Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla: Ebro ibaiaren ertzean dago kokatuta eta klima mediterranearra du. Hiriburua Laguardia da.
5. Gasteizko Kuadrilla: Gasteizen eremu berbera hartzen du gutxi gorabehera. Hedaduraz Kuadrilletan txikiena izan arren, populazioaren 3/4ak biltzen ditu.
6. Kanpezu-Arabako Mendialdea: Ekialdean dagoen eta Nafarroarekin muga egiten duen eskualde menditsua. Hiriburua Kanpezu da.
7. Zuiako Kuadrilla: Gipuzkoa eta Bizkaiarekin muga egiten duen eskualdea. Hiriburua Murgia da.
8. Lurralde Historikoan gaur egun zazpi Kuadrilla diren arren, Trebiñuko Konterriaren berezitasun historikoa dela medio, administrazio-mugak gorabehera, euskararen lurraldea den neurrian, aintzat hartu nahi du Trebiñu bera ere Plan Estrategiko honen baitako garapen gisa.

Llodio y Amurrio superan los 10.000 habitantes Agurain cuenta con más de 5.000. Casi el 15% de la población alavesa vive en municipios de menos de 5.000 habitantes.

### 3.2.1. División administrativa comarcal

El territorio histórico se divide en siete comarcas administrativas llamadas cuadrillas. La división del territorio foral proviene del siglo XVI, aunque la distribución actual es de 1983 y viene dada por una norma foral de 1989:

1. Cuadrilla de Salvatierra-Agurain: situada al noroeste del territorio histórico. La capital es Salvatierra-Agurain.
2. Cuadrilla de Ayala: comprende principalmente los pueblos de la cuenca del río Nervión, entre otros Llodio y Amurrio, el segundo y el tercer municipio con mayor población del territorio histórico, respectivamente. La capital es Llodio.
3. Cuadrilla de Añana: situada en el oeste y suroeste. Se compone de varios valles en torno al río Ebro. La capital es Rivabellosa.
4. Cuadrilla de Laguardia-Rioja Alavesa: Está situado en la ribera del Ebro y goza de un clima mediterráneo. La capital es Laguardia.
5. Cuadrilla de Vitoria-Gasteiz: coincide aproximadamente con el término de Vitoria-Gasteiz. A pesar de ser la cuadrilla de menor superficie reúne 3/4 de la población.
6. Cuadrilla de Campezo-Montaña Alavesa: comarca montañosa situada al este del territorio, lindante con Navarra. La capital es Campezo.
7. Cuadrilla de Zuia: comarca fronteriza con Gipuzkoa y Bizkaia. La capital es Murgia.
8. Aunque actualmente son siete las cuadrillas del territorio histórico, dada la singularidad histórica del Condado de Treviño, independientemente de las delimitaciones administrativas, este Plan Estratégico toma también al propio Treviño como parte del territorio del euskera.

## 3.3. BIZTANLERIA

Araba 2011 urtean erroldaturikoak 321.254 biztanle dira, 1986an baino 53.526 biztanle gehiago. Arabako biztanleria, 25 urteren buruan, hazi egin da, beraz, %20.

## 3.3. POBLACIÓN

La población censada de Álava en el 2011 consta de 321.254 habitantes, 53.526 más que en el año 1986. En un tramo de 25 años, la población de Álava aumenta, por tanto, un 20 %.

**0. Grafikoa / Gráfico 0**

**Arabako biztanleria adin eta sexuaren arabera, 2011**

**Población alavesa según edad y sexo, 2011**




*Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak*

*Fuente: EUSTAT, Censo de Población y Viviendas*

Hala ere, biztanleriaren bilakaerak adierazten duen ezaugarri nagusietako bat Araban, EAEn bezala, zera da: zaharren adin taldea hazten doa, gazteena murrizten doan bitartean.

No obstante, una de las características más notables de la evolución de la población de Álava, al igual que en la Comunidad Autónoma de Euskadi (CAE), es que aumenta principalmente el grupo de mayor edad, mientras el grupo más joven disminuye.

**1. Grafikoa / Gráfico 1**

**Biztanleriaren bilakaera, 1986-2011**

**Población de Álava, 1986-2011**




| | 1986 | 2011 |
|---|---|---|
| > 64 urte / años | 25.958 | 57.866 |
| 20-64 urte / años | 157.638 | 205.448 |
| 0-19 urte / años | 84.132 | 57.940 |

*Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak*

*Fuente: EUSTAT, Censo de Población y Viviendas*

Horrela 1986ko biztanleriaren %31 gaztea zen, 19 urtez azpikoa, alegia, eta, biztanleriaren etorkizun argia islatzen zuen, bereziki 65 urtetik gorakoak % 10 baino ez baitziren. 2011 urtean, 25 urte geroago, biztanleriaz egin litekeen argazkia bestelakoa da oso, izan ere, gazte biztanleriak etorkizunean egin lezakeen isla ez baitirudi dagoeneko nahikoa haziz doan 65 urtetik gorakoen hazkundeari eusteko.

Así, hace 25 años la población presentaba un 31 % de jóvenes menores de 19 años, un 10% de mayores de 65 años, lo que proyectaba un futuro de continuidad que sustentara a la población de la tercera edad. La fotografía de la población 25 años más tarde es muy diferente, pues la proyección actual no parece que sea sostenible en el futuro del crecimiento previsto de los tramos de edad mayores, es decir, a partir de los 65 años.

**2. Grafikoa / Gráfico 2**

**Biztanleriaren bilakaera adin taldeka**

**Población por tramos de edad, 1986-2011**




*Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak*

*Fuentes: EUSTAT, Censo de Población y Viviendas*

## 3.3.1. Arabako biztanleriaren jatorria

## 3.3.1. Origen de la población en Álava

**3. Grafikoa** / Gráfico 3

**Arabako biztanleriaren jatorria 2011**

**Lugar de origen de la población de Álava, 2011**




*Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak Egilea: Soziolinguistika Klusterra*

*Fuente: EUSTAT, Censo de Población y Viviendas*

Migrazio mugimenduen azterketak erakusten du 1986an Arabako Lurraldeak hainbat biztanle jaso zuela beste lurraldeetatik, hala nola, Erkidegotik %10 eta Erkidegotik kanpo %35.

El estudio de los movimientos migratorios es ilustrativo para observar que en 1986 el Territorio acogió población tanto de la Comunidad Autónoma (10 %) como de fuera de la misma (35%).

**4. Grafikoa** / Gráfico 4

**Arabako biztanleriaren jatorria 1986-2011 (%)**

**Lugar de origen de la población de Álava, 1986-2011 (%)**




| | 1986 (%) | 2011 (%) |
|---|---|---|
| Araba / Álava | 56 | 54 |
| EAEko beste herrialdeak / Otros territorios de la CAE | 10 | 11 |
| EAEtik kanpo / Fuera de la CAE | 35 | 35 |

*Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak*

*Fuente: EUSTAT, Censo de Población y Viviendas*

EAEko hiru lurraldeetatik kanpoan jaiotako biztanle gehien duen lurraldea da Araba, eta horregatik merezi du gogoratzea, azken urteotako atzerriko etorkin gehienak 15-40 urte bitartekoak direla eta hortaz, pisu handia dute adin horietan, %20 ingurukoa, alegia. Horrek adin-tarte horretan euskalduntzearen moteltzea dakar.

Arabako biztanleriaren jatorriaren bilakaeraren desglosea jarraian:

Álava es el territorio que mayor inmigración acoge en la CAE, y siendo así, merece la pena recordar que la mayoría de la población inmigrante de Álava, proveniente de otras comunidades, se encuentra entre los 15-40 años, y representa un 20% en dicha franja de edad, lo cual retrasa la euskaldunización en dichas edades.

A continuación se ofrece el desglose de la evolución de la inmigración de la población alavesa:

**5. Grafikoa** / Gráfico 5

**Arabako biztanleriaren jatorriaren bilakaera xehea, 1981-2011**

**Lugar de origen población, 1981-2011**




| | 1981 | 1991 | 2001 | 2011 |
|---|---|---|---|---|
| Araba / Álava | 149.232 | 152.891 | 161.215 | 172.566 |
| Gipuzkoa | 6.608 | 8.507 | 9.993 | 10.900 |
| Bizkaia | 10.934 | 20.742 | 22.099 | 23.153 |
| EAEtik kanpo / Fuera de la CAE | 88.930 | 87.379 | 84.064 | 78.630 |
| Atzerrian / En el extranjero | 2.146 | 2.928 | 8.616 | 33.481 |

*Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak*

*Fuente: EUSTAT, Censo de Población y Viviendas*

1981 urtean Estatuko beste komunitate batzuetako inmigrazioa % 35 bazen ere, 2011 urtean %24 izatera pasatzen da, eta, aldiz, atzerritarrak % 3 izango dira 2001n, eta 2011n, hamar urte geroago, %10.

La población proveniente de otras comunidades del estado español pasa de ser un 35 % en 1981 a ser en el año 2011 un 24 %, y, sin embargo, la población extranjera pasa a ser en el 2001 el 3%, y en el 2001, diez años más tarde, el 10 %.

### 3.3.2. Generoa

Biztanleak generoaren arabera, berriz, 1986an antzeratsu mantendu dira, %50ean gizonak, %50ean emakumezkoak.

### 3.3.2. Género

La población alavesa según el género se presenta igual en 25 años, pues en 1986 son 50 % de género femenino y 50 % de masculino.

**6. Grafikoa** / Gráfico 6
**Biztanleak generoaren arabera, 1986-2011**
**Población alavesa según el género, 1986-2011**




*turria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak*

*Fuente: EUSTAT, Censo de Población y Viviendas*

## 3.4. HIZKUNTZA GAITASUNA

### 3.4.1. Euskara gaitasuna

## 3.4. COMPETENCIA LINGÜÍSTICA

### 3.4.1. Competencia en euskera

**7. Grafikoa** / Gráfico 7
**Euskara gaitasuna, 2011**
**Competencia lingüística, 2011**




*Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak*

*Fuente: EUSTAT, Censo de Población y Viviendas*

Euskara-gaitasunari dagokionez, 2011n 5 urtetik gorako biztanleen %24 elebiduna da Araban, %26 elebidun hartzailea eta %51 elebakarra. Beste era batera esanda: 2011n Araban 74.383 elebidun dira, eta beste 81.229 elebidun hartzaile. Elebidunak eta elebakarrak guztira, 155.612. Halaber, elebakarrak 155.942 dira. Honek guztiak adieraz lezake Arabako biztanleriaren erdiak, bitik batek gutxienez ulertzen duela euskaraz. Baina, adinari erreparatuz gero, datua esanguratsuagoa da, alde handiz, gazteek portzentaje horiek aisa gainditzen dituzte eta.

El 24 % de la población mayor de 5 años es bilingüe en Álava, el 26% es bilingüe pasivo y el 51 % es monolingüe. Dicho de otro modo en 2011 en Álava existen 74.383 personas bilingües, y otra s 81.229 son bilingües pasivos. La suma de bilingües y bilingües pasivos da un total de 155.612, y los monolingües son en Álava 155.942. Todo ello expresa que la mitad de la población alavesa, uno de cada dos, por lo menos entiende euskera. El dato es superado, sin embargo, en cuanto se acerca a las franjas de edades jóvenes, pues los niveles de comprensión son entonces mayores.

### 3.4.2. Euskara gaitasunaren bilakaera

### 3.4.2. Evolución de la competencia lingüística

**8. Grafikoa** / Gráfico 8

**Euskara gaitasuna, 1986-2011**

**Competencia lingüística, 1986-2011**




| | 1986 | 1991 | 1996 | 2001 | 2006 | 2011 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Elebidunak / Bilingües | 17.422 | 22.995 | 40.479 | 45.312 | 74.593 | 74.383 |
| Elebidun hartzaileak / Bilingües pasivos | 43.999 | 53.581 | 54.366 | 68.907 | 67.092 | 81.299 |
| Elebakarrak / Monolingües | 199.807 | 190.981 | 182.166 | 165.241 | 155.884 | 155.942 |

*Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak*

*Fuente: EUSTAT, Censo de Población y Viviendas*

Zalantzarik gabe, Arabako hiztunen euskara gaitasunak izan duen bilakaerak erakusten du elebidunen hazkundeak 1991 bitartean goranzko joera apala izan bazuen ere, 1991tik 1996ra elebidunak ia bikoiztu egin zirela, eta 1996tik 2001era berriro goranzko joera izan ondoren, 2001etik 2006ra bitartean elebidunak ia bikoiztu zirela berriro ere, 45.312tik 74.593ra, hain zuzen.

Sin duda alguna, la evolución en la competencia lingüística que se ha dado en Álava muestra un comportamiento al alza muy notable, crecimiento que fue débil hasta 1991 pero que desde 1991 a 1996 fue ejemplar pues el número de bilingües casi se duplica, y de nuevo de 1996 hasta 2001 el número de bilingües crece débilmente, y de nuevo entre 2001 y 2006 el número de bilingües de nuevo llega por poco a duplicarse, pasando de 45.312 a 74.593.

Elebidunen kopuruak 1986an hamarretik hiru elebakarrak baziren (%76), hogeita bost urteren buruan hamarretik bi ziren (%50), beraz, euskararen gaitasunak asko irabazi duela esan liteke.

El número de monolingües en 25 años desciende, pues en 1986 eran uno de cada tres (76 %) y en 2011 eran uno de cada dos (50%)–, por tanto se podría decir que el aumento en la competencia en euskera ha sido muy considerable.

Elebidun hartzaileen gaitasunaren bilakaeraren goranzko joera apala izan da baina etengabea, eta, horrela, 2011n Araban lautik bat elebidun hartzailea zen.

El aumento del grupo de bilingües pasivos ha demostrado un aumento débil pero ininterrumpido, y así, en el 2011 uno de cada cuatro alaveses era bilingüe pasivo.

### 3.4.3. Euskara gaitasuna adin taldeka eta bere bilakaera 1981-2011.

### 3.4.3. Competencia lingüística por grupos de edad y su evolución 1981-2011.

Datuen bilakaerak erakusten du 5 urtetik gorako euskaldunen kopuruak hazkunde nabarmena izan duela Araban, izan ere, 1981ean euskaldunak % 4 ziren, eta 2011n, berriz, %23.

El crecimiento en la competencia en euskera en Álava es muy significante pues la población mayor de 5 años competente en euskera en el año 1981 era el 4%, y 25 años después, en el 2011 era un 23 %.

**9. Grafikoa** / Gráfico 9

**Arabako hizkuntza gaitasunaren bilakaera adin taldeka, 1981-2011**

**Compentencia en euskera por tramo de edades, 1981-2011**




*Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak*

*Fuente: EUSTAT, Censo de Población y Viviendas*

Elebidunen hazkunderik handiena 35 urtetik beherakoen artean egon da, hau da, 16-24 eta 25-34 adin-taldeetan (%46,2 eta %29,3

El crecimiento más intenso es en menores de 35 años, especialmente en la franja comprendida entre 16-24 y 25-32 (46,2% y 29,3% respectivamente). Con todo,

hurrenez hurren). Hala ere, elebidunen hazkundea 50 urtetik beherako adin-talde guztietan gertatu da. Gertakari hori, gainera, ez da berria, halaxe gertatu izan baita azken urteotan, baina agerikoagoa da gazteen artean. Horrela, 16 eta 24 urtekoen artean elebidunak ia erdia dira gaur egun (%46,2), eta 1991n %8,9 baino ez ziren.

Arabako gizarteak batez beste euskara gaitasunean erakusten duen kopurutik askoz gorago dago Arabako gazteria, izan ere, Araban 5 eta 19 urte bitartekoen artean bi heren baino gehiago (%68) euskalduna da, hau da, Arabako biztanleriak duen euskaldunen tasa (%22) hiru aldiz, hain zuzen. Honek erakusten du Arabako gazteak euskaldunak direla gehienak, baina Arabako euskaldun gehienak haurrak eta gazteak direla ere bai.

el crecimiento de bilingües se ha dado en edades comprendidas hasta los 50 años. No es sin embargo un comportamiento aislado, pero sí mucho más agudo en las edades más tempranas. Por tanto, entre jóvenes de 16-24 años es bilingüe casi la mitad de ellos en 2011, siendo en 1991 únicamente un 8,9 %

Los datos que arroja la competencia de la juventud alavesa están por encima del promedio de la sociedad alavesa, pues entre 5 y 9 años dos tercios (68%) es bilingüe, es decir, triplica la tasa de bilingües del total de Álava. Ello demuestra que la mayoría de la juventud alavesa es bilingüe, y, al mismo tiempo, que la mayoría de la población bilingüe alavesa se encuentra en la infancia y la juventud.

**10. Grafikoa** / Gráfico 10

**Gaitasuna adin taldeka, 2011**

**Competencia en euskera por edad, 2011**




*Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak*

*Fuente: EUSTAT, Censo de Población y Viviendas*

Hogeita hamar urteotako euskara gaitasunaren bilakaerak adin taldeka erakusten du Araban 1991 urtean jada aurreikusten ziren aldaketa-zantzuak errealitate bihurtu direla. Hau da, gazteenen euskalduntzea agerikoa da eta erdaldun elebakarren jaitsiera orokorra da.

Se puede decir que en 30 años la competencia en euskera por edades ha evolucionado de tal forma que se han hecho realidad ciertos cambios que ya se preveían en 1991, es decir, la euskaldunización de la juventud es palpable, y el descenso de monolingües es generalizado.

Elebidun hartzaileen ehunekorik txikiena 70 urtetik gorakoen artean dago (% 6 baino gutxiago) eta adinean behera egin ahala handituz doa. 30 urtetik behera euskaldun hartzaileak gutxituz doaz. Euskaldun hartzaileen ehunekorik handiena 30-39 urte bitartekoek dute (% 30etik gora). 1981ean elebidun hartzailerik gehien gazteen adinetan bazegoen ere, adinean gora egin ahala portzentajea murriztuz zihoan. 30 urteren buruan aldaketa handia izan da, izan ere, 2011 urtean 25-50 urte bitartean dago elebidun hartzailerik proportziorik handiena, areago 35-39 urte bitartekoen (% 31,7) heren bat, elebidun hartzailea da, adin bereko elebidunen oso antzeko portzentajea (% 32,2).

Los euskaldunes pasivos tienen su porcentaje más bajo en el grupo de 70 años en adelante (menos del 6%), y va aumentando a medida que desciende la edad. Por debajo de los 30 años, desciende junto con la edad. En referencia a los euskaldunes pasivos, cabe señalar que en 1981 el mayor porcentaje correspondía a las franjas más jóvenes y ese porcentaje disminuía a medida que aumentaba la edad. Transcurridos 30 años, el cambio ha sido radical, puesto que en 2011 es la población entre 25-50 años la que presenta el mayor porcentaje de euskaldunes pasivos, y muy especialmente el grupo de 35-39 años, donde casi un tercio (31,7%) de los individuos son euskaldunes pasivos, porcentaje muy cercano al de los euskaldunes del mismo grupo de edad (32,2%).

Adinean gora egin ahala, jaitsiz doa euskaldunen ehunekoa. Horrela, 55 urtetik gora, arabarren % 7 baino gutxiago dira euskaldunak. Horrenbestez, ume eta gazteek izan dezaketen komunikazio portaerarik ez da 55 urtetik gorakoen artean. Izan ere, 40 eta 55 urte artean elebakarrak dira bi heren, 56 urtetik aurrera, %80.

El porcentaje de euskaldunes desciende según avanza la edad, de modo que, por encima de los 55 años, menos del 7% de los alaveses y alavesas son bilingües. Por tanto, queda de manifiesto que la infancia y la juventud son portadoras de actuaciones comunicativas que existen entre los grupos de mayores de 55 años. Entre 40-55 años son monolingües dos tercios, y a partir de 56 años, el 80%.

Azken hamarkadako biztanleriaren mugimenduak, kanpoko jendea Arabara etortzeak, batez ere atzerritarrak, eragina izan du 15-40 urte bitarteko elebidunen ehunekoan. Izan ere, 2001ean adin-talde horretako atzerritarren ehunekoa % 3 bitartekoa zen. 2011n, aldiz, % 10 dira atzerritarrak adin-talde horietan.

Durante la última década, la movilidad de la población de la CAE, así como la llegada de gran cantidad de inmigrantes, en su mayoría extranjera, ha afectado al porcentaje de población bilingüe, especialmente en los grupos 15-40 años. Hay que tener en cuenta que en 2001 el porcentaje de población extranjera en dicha franja de edad es del 3%, mientras que en 2011 es de un 10%.

Los miembros del Consejo son personas con influencia en el proceso de normalización lingüística. Las funciones de las veinticuatro personas que intervienen actualmente consisten en elaborar la fotografía actual del euskera en Álava, determinar

beharreko lan-ildoak zehaztu eta egoki irizten diren uneetan behar diren aholkuak eta iradokizunak egitea.

Batzordekideak hauek dira:

- Batzordeburua: Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua.
- Batzordeburu ordea: Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria.
- Idazkaria: Euskararen Foru Zerbitzuaren burua, Kontseiluaren bileretan hitzik eta botorik gabe parte hartuko duena, eta prozedura legeek kide anitzeko organoetako idazkariei esleitutako eginkizunak beteko dituena.
- Batzordekideak: Arabako gizarte eragileetako ordezkariak.

las líneas de trabajo a seguir, y efectuar las necesarias recomendaciones y sugerencias en los momentos que se consideren adecuados.

La composición del Consejo es la siguiente:

- Presidenta: la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes.
- Vicepresidente: la directora de Euskera, Cultura y Deporte.
- Secretario: el jefe del Servicio Foral de Euskera, que asistirá a las sesiones del Consejo sin voz ni voto, y ejercerá las funciones atribuidas por la legislación procedimental a los secretarios de los órganos colegiados.
- Vocales: representantes del tejido social de Álava.

## 5.3. OINARRI JURIDIKOA

Legeak ezartzen du euskararen ofizialtasuna gure lurraldean. Ofizialtasuna aitortzearekin bat herri erakundeek herritarrei euskara balio osoz erabiltzeko aukera bermatu behar diete beti ere, herritarren hizkuntza eskubideen errespetuarekin uztartuz.

Euskararen ofizialtasunean eta herritarren eskubideetan oinarritzen da erakundeen hizkuntza politika eta plangintza. Kasu honetan ere, Arabako Foru Aldundiko Euskararen Foru Zerbitzuaren Plan Estrategikoa legediak ezarritakoa hartu du oinarri juridikotzat.

Hurrengo puntuetan lege marko horren oinarrizko artikuluak azalduko dira:

### 5.3.1. Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren 3/1979 Abenduaren 18ko Lege Organikoa

*6. ARTIKULUA*

*1.- Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal*

## 5.3. BASES JURÍDICAS

La ley establece la oficialidad del euskera en nuestro territorio. El reconocimiento de la oficialidad implica que las instituciones públicas deben garantizar en todo momento a los ciudadanos la posibilidad de una utilización plenamente válida del euskera, garantía que irá unida al respeto de los derechos lingüísticos de los ciudadanos.

La política y planificación lingüística de las instituciones se basa en la oficialidad del euskera y en los derechos de los ciudadanos. También en este caso, el Plan Estratégico del Servicio de Euskera de la Diputación Foral de Álava tiene como fundamento jurídico lo establecido por la legislación.

En los siguientes puntos se presentan los artículos fundamentales de dicho marco legal.

### 5.3.1. Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco

*ARTÍCULO 6*

*1.- El Euskera, lengua propia del Pueblo Vasco, tendrá como el castellano carácter de lengua oficial en*

*Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.*

*2.- Komunitate Autonomoko Erakunde komunek Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren ñabardurak kontuan izanik bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte.*

*3.- Hizkuntza dela-eta, ez da inor gutxietsiko.*

*Euskadi, y todos sus habitantes tienen el derecho a conocer y usar ambas lenguas.*

*2.- Las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma, teniendo en cuenta la diversidad sociolingüística del País Vasco, garantizarán el uso de ambas lenguas, regulando su carácter oficial, y arbitrarán y regularán las medidas y medios necesarios para asegurar su conocimiento.*

*3.- Nadie podrá ser discriminado por razón de la lengua.*

### 5.3.2. Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko LEGEA, euskararen erabilpena arauzkotzezkoa

Euskararen Erabilpena Arauzkotzezko azaroaren 24ko Oinarrizko Legeak herritarren hizkuntza eskubideak aitortu eta herri aginteek hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu. Lege horrek hizkuntza politikako ekimenak garatzeko bidea zabaldu du, gizarteko eremu giltzarrietan euskararen ezagutza eta erabilera berreskuratzeko.

***1. Atala:** Euskararen eta gaztelaniaren erabilera Lege honetan agindutakoari eta Lege honen hedapenerako Eusko Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak eman ditzaten gainerako aginduei atxikiko zaie.*

***2. Atala:** Euskal Herriak euskara du berezko hizkuntza.*

***3. Atala:** Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira.*

***4. Atala:** Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan hizkuntzagatik inork bereizkeriarik izan ez dezan, Herri Aginte sailek ardura izan eta behar daitezen neurriak hartuko dituzte.*

***5. Atala:***

1. *Euskal herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak hitzez nahiz idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.*

### 5.3.2. Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera

La Ley Básica de 24 de noviembre, de Normalización del Uso del Euskera, reconoce los derechos lingüísticos de los ciudadanos y establece las obligaciones de los poderes públicos en materia lingüística. Esta ley ha abierto el camino para desarrollar iniciativas de política lingüística, con el fin de recuperar el conocimiento y el uso del euskera en sectores clave de la sociedad. Así pues:

***Artículo 1:** El uso del euskera y el castellano se ajustará, en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a lo dispuesto en la presente ley y demás disposiciones que en desarrollo de esta ley dicten el Parlamento y el Gobierno vascos.*

***Artículo 2:** La lengua propia del País Vasco es el euskera.*

***Artículo 3:** Las lenguas oficiales en la Comunidad Autónoma del País Vasco son el euskera y el castellano.*

***Artículo 4:** Los poderes públicos velarán y adoptarán las medidas oportunas para que nadie sea discriminado por razón de la lengua en la Comunidad Autónoma del País Vasco.*

***Artículo 5***

1. *Todos los ciudadanos del País Vasco tienen derecho a conocer y usar las lenguas oficiales, tanto oralmente como por escrito.*

*2. Euskal herritarrei honako funtsezko eskubide hauek aitortzen zaizkie:*

- *Arduralaritzarekin eta Autonomi Erkidegoan kokatutako edozein jardute sail edo erakunderekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.*
- *Ikasketak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea.*
- *Aldizkariak, irrati eta telebista eta beste adierazpideetako emankizunak euskaraz jasotzeko eskubidea.*
- *Lanbidezko, lanezko, politikazko eta sindikaritzazko ekintzetan euskaraz aritzeko eskubidea.*
- *Edozein bilkuratan euskaraz egiteko eskubidea.*

*3. Eskubide hauek eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen, herri aginte sailek beroien erabilpena bermatuko dute.*

*2. Se reconocen a los ciudadanos del País Vasco los siguientes derechos lingüísticos fundamentales:*

- *Derecho a relacionarse en euskera o en castellano oralmente y/o por escrito con la Administración y con cualquier organismo o entidad radicado en la Comunidad Autónoma.*
- *Derecho a recibir la enseñanza en ambas lenguas oficiales.*
- *Derecho a recibir en euskera publicaciones periódicas, programaciones de radio y televisión y de otros medios de comunicación.*
- *Derecho a desarrollar actividades profesionales, laborales, políticas y sindicales en euskera.*
- *Derecho a expresarse en euskera en cualquier reunión.*

*3. Los poderes públicos garantizarán el ejercicio de estos derechos, a fin de que sean efectivos y reales.*

### 5.3.3. 1998ko martxoaren 31ko 10/1998 Foru Araua

1998ko martxoaren 31ko 10/1998 FORU ARAUAK arautu zuen euskararen erabilera normalizatzea, Arabako Foru Administrazioan eta Lurralde Historikoan.

Arabako Foru Administrazioan euskararen erabilera normaltzeko arautegia jasotzen duen Foru Arauaren helburua da egokitzea, alde batetik, egoera soziolinguistiko berrira, euskararen egoerak azkeneko 14 urteotan aurrerapauso handia eman duelako Arabako lurralde historikoan; bestetik, lege egoerara, Eusko Jaurlaritzak onartutako 86/1997 Dekretura, Euskal Herriko herri administrazioetan erreferentzi puntua izateko asmoz jaio dena.

Izan ere, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 1.2 artikuluak adierazten duenez, "Euskal Herriko Autonomi Erkidegoan kokatutako herri

### 5.3.3. Norma Foral 10/1998, de 31 de marzo de 1998

La Norma Foral 10/1998, de 31 de marzo, reguló la normalización del uso del euskera en la Administración Foral de Álava y en el territorio histórico.

Esta norma foral recoge la normativa para la normalización del uso del euskera en la Administración Foral de Álava y persigue el objetivo de adecuarse a la nueva situación, tanto sociolingüística, por los avances experimentados en la situación del euskera en el territorio histórico alavés durante los anteriores 14 años, como legal, dada la aprobación por el Gobierno Vasco del Decreto 86/1997, nacido con vocación de ser el referente clave para todas las administraciones públicas vascas.

De hecho, según se establece en el artículo 1.2 del Decreto 86/1997, de 15 de abril, "con el objeto de garantizar a los ciudadanos el derecho a relacionarse

administrazioekiko harremanetan herritarrei euskaraz aritzeko eskubidea bermatzeko, herri agintariek beharrezko neurriak hartuko dituzte euskararen erabilera eskumen eremu guztietan normalizatu dadin, hala lanerako nola jendearekin harremanetarako hizkuntza moduan."

10/1998 Foru Arauak euskararen arautegia Foru Administraziora egokitzeko asmoa du. Horretarako, batez ere kontuan hartzen ditu bai herritarrek Foru Administrazioarekin dituzten harremanak, eta bai Arabako lurralde historikoaren biztanleen arteko harremanak. Foru Administrazio barnean euskararen erabilera era berezian erregulatzen da; hain zuzen ere, foru erakunde bakoitzean Euskararen Erabileraren Normalizazio Plana onartu eta gauzatuko da, 86/1997 Dekretuaren 4. artikuluari jarraituz.

***LEHENENGO KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK***

***1. ARTIKULUA. Hizkuntza ofiziala.***

*Euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza, Arabako Lurralde Historikoko eta bertako Foru Organoen hizkuntza ofiziala da, gaztelania bezala.*

***2. ARTIKULUA. Aplikazio esparrua.***

*1. Lege eta ezargarri diren gainontzeko arautegietan xedatutakoarekin bat etorriz erabiliko dute euskara Arabako Lurralde Historikoko Foru Organoek, hala bere barne funtzionamenduan nola herritarrekiko eta organismo eta erakunde guztiekiko harremanetan.*

*2. Arabako Foru Administrazioak Foru Arau honetan jasotako xedapenak beteko ditu bere barne eta kanpo harremanetan euskararen erabilera eta gizartearen elebitasuna normalizatzeko.*

***3. ARTIKULUA. Lehentasunezko tratamendua gaztelaniarekiko benetako berdintasuna lortzeko.***

*Arabako Foru Administrazioak euskararen erabilera eta ezagutza bultzatuko ditu bi hizkuntza ofizialen benetako berdintasuna lortzeko.*

en euskera con las administraciones públicas radicadas en la Comunidad Autónoma de Euskadi, los poderes públicos adoptarán las medidas oportunas para la normalización del uso del euskera, ya como lengua de servicio ya como lengua de trabajo, en los diferentes ámbitos de competencia."

La Norma Foral 10/1998 pretende adecuar la normativa del euskera a la Administración Foral. Para ello se centra fundamentalmente tanto en las relaciones de los ciudadanos con la Administración Foral como en el uso del euskera a nivel social en el territorio histórico de Álava, siendo el uso interno del euskera en la Administración Foral objeto de especial regulación a través de la aprobación y ejecución del Plan de Normalización del Uso del Euskera de cada entidad foral, en virtud del artículo 4 del mencionado Decreto 86/1997.

***CAPÍTULO PRIMERO.- DISPOSICIONES GENERALES***

***Artículo 1. Lengua oficial.***

*El euskera, lengua propia del País Vasco, es, al igual que el castellano, idioma oficial del territorio histórico de Álava y de sus órganos forales.*

***Artículo 2. Ámbito de aplicación.***

*1. Los órganos forales del territorio histórico de Álava harán uso del euskera, tanto en el ámbito del funcionamiento interno como en el de las relaciones con los ciudadanos y el conjunto de organismos e instituciones, con arreglo a las leyes y demás normativa de aplicación.*

*2. La Administración Foral de Álava seguirá las disposiciones de la presente norma foral para la normalización del uso del euskera y el bilingüismo social en sus relaciones internas y externas.*

***Artículo 3. Tratamiento preferente para lograr la igualdad real con el castellano.***

*La Administración Foral de Álava promoverá el conocimiento y uso del euskera con el fin de lograr la igualdad real de las dos lenguas oficiales.*

***4. ARTIKULUA. Herritarren hizkuntza eskubideak.***

*Euskal Herriko herritar guztiek dute bi hizkuntza ofizialak ezagutu ez ezik, erabiltzeko eskubidea, hala ahoz nola idatziz. Ondorioz, Arabako Foru Administrazioak, indarreko legediak oro har onartutako eskubideen ildotik, honako hizkuntza eskubideak aitortzen dizkie espresuki herritarrei:*

- *Arabako Foru Administrazioarekin ahozko edo/eta idatzizko harremanak euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.*
- *Arabako Foru Administrazioak antolatutako edo/eta kudeatutako ikasketa oro bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea.*
- *Arabako Foru Administrazioak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabideren bidez jakitera ematen dituen berri eta xedapen oro euskaraz zein gaztelaniaz hartzeko eskubidea.*
- *Arabako Foru Administrazioko edozein bileratan euskaraz zein gaztelaniaz jarduteko eskubidea.*

***Artículo 4. Derechos lingüísticos de los ciudadanos.***

*Todos los ciudadanos del País Vasco tienen derecho tanto a conocer como a hacer uso oral y escrito de ambas lenguas oficiales. En consecuencia, la Administración Foral de Álava, con el mismo tenor de los recogidos en general por la legislación en vigor, reconoce expresamente a los ciudadanos los siguientes derechos lingüísticos:*

- *Derecho a mantener relaciones orales y/o escritas con la Administración Foral de Álava en euskera o castellano.*
- *Derecho a realizar cualquier tipo de enseñanza organizada y/o gestionada por la Administración Foral de Álava en las dos lenguas oficiales.*
- *Derecho a recibir en euskera o castellano todo tipo de notificación o disposición de la que dé cuenta la Administración Foral de Álava mediante prensa diaria, periódica, radio o cualquier otro medio de comunicación.*
- *Derecho a intervenir en euskera o castellano en cualquier reunión celebrada en la Administración Foral de Álava.*

***HIRUGARREN KAPITULUA.-ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN EUSKARAREN ERABILERA BULTZATZEA ETA NORMALIZATZEA.***

***20. ARTIKULUA. Herritarrek euskara ezagutzeko eta erabiltzeko sustapena.***

*Hiru dira Arabako lurralde historikoan euskararen erabilera normalizatzeari dagokionez Arabako Foru Administrazioak bere gain hartzen dituen helburu nagusiak: euskaraz dakiten herritarren kopurua gehitzea, euskararen oraingo erabilera bermatzea eta euskaraz dakitenek nahiz ikasten ari direnek erabili dezaten bultzada iraunkorra ematea.*

***CAPÍTULO TERCERO. PROMOCIÓN Y NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA EN EL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA.***

***Artículo 20. Promoción del conocimiento y del uso de los ciudadanos.***

*Los tres objetivos principales que asume la Diputación Foral de Álava en lo que respecta a la normalización del uso de la lengua vasca en el territorio histórico de Álava son los siguientes: aumentar el número de ciudadanos conocedores de dicho idioma, garantizar el uso actual del euskera, e impulsar de forma continua su uso por parte de quienes saben euskera y de quienes lo están aprendiendo.*

*Foru Administrazioak etengabeko ekintzak bultzatuko ditu euskara eta gaztelania berdintasunez erabili daitezen.*

*Era berean, euskararen erabilera bultzatzeko eta hura erabiltzen den esparruak zabalagotzeko helburuaz, nahi duten hiritarren euskarazko alfabetizazioa sustatuko du.*

*La Administración Foral promoverá actividades permanentes dirigidas a utilizar en condiciones de igualdad el euskera y el castellano.*

*Igualmente, con el fin de impulsar el uso del euskera y ampliar sus ámbitos de utilización, promoverá la alfabetización en euskera de los ciudadanos que lo deseen.*

***21. ARTIKULUA. Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea.***

*Arabako Foru Aldundiak helduen euskalduntzea eta alfabetatzea lortzeko prozesuak bultzatu eta burutuko ditu.*

***Artículo 21. Euskaldunización y alfabetización de adultos.***

*La Diputación Foral de Álava impulsará y desarrollará procesos de euskaldunización y alfabetización de adultos.*

***22. ARTIKULUA. Gizartearen elebitasuna***

*Foru Aldundiak, Euskalduntze Zerbitzuaren bidez, Arabako lurralde historikoaren gizarte eta kultur bizitzaren esparru guztietan euskararen erabilera suspertzeko kanpainak egingo ditu, batez ere merkataritza, dendari, profesional, kultur eta kirol elkarteei zuzenduta.*

*Era berean, ume, gazte eta helduentzako kultur eta aisi ekintzak bultzatuko ditu udalekin, eskualdeekin, herri-batzarrekin eta hizkuntz normalkuntzan lanean diharduten hiritar elkarte eta taldeekin lanean.*

***Artículo 22. Bilingüismo social***

*La Diputación Foral, por medio del Servicio de Euskaldunización, realizará campañas de fomento del uso de la lengua vasca en todos los ámbitos de la vida social y cultural del territorio histórico de Álava, dirigiéndose de manera especial a las entidades mercantiles, comerciales, profesionales, culturales y deportivas.*

*Asimismo, impulsará actividades culturales y de esparcimiento en euskera para niños, jóvenes y adultos, en colaboración con los ayuntamientos, cuadrillas, concejos y colectivos y asociaciones ciudadanas implicadas en la normalización lingüística.*

# 6

# PLAN ESTRATEGIKOAREN HELBURUA ETA BALIOAK

# OBJETIVO Y VALORES DEL PLAN ESTRATÉGICO

# 6. PLAN ESTRATEGIKOAREN HELBURUA ETA BALIOAK

## 6.1. HELBURUA

2014ko Plan Estrategikoaren helburua zera da:

- Araban euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko beharrezkoak diren neurriak sustatzea.
- Horretarako, Araba mailako gizarte eragile eta herri erakundeen arteko koordinazioa eta elkarlanerako ekimenak jorratuko dira, euskararen normalizazioaren aldeko urratsak emateko maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean.

## 6.2. BALIOAK

Baloreek plan estrategikoaren bidez lortu nahi diren helburuak justifikatzen dituzte. Horregatik, oso garrantzitsua da balore horien inguruan ahalik eta adostasun maila handiena lortzea, guztiek ezagutu eta barnera ditzaten.

Euskararen legea mamitu zuten irizpide eta printzipioak baliagarriak dira oraindik ere: euskararekiko atxikimendua, hizkuntza propioa, euskararen ofizialtasuna, herritarren eskubideak eta gizarte elebidun edo eleaniztun baten proiektua.

Horretaz gain, edozein hizkuntzaren biziberritze prozesuan funtsezkoak diren elementuen[4] inguruan egituratzen du Euskararen Foru Zerbitzuak bere Plan Estrategikoa:

- Lege marko egokia, hizkuntza normalkuntza ahalbidetzeko behar bestekoa izango dena.
- Hizkuntza politika eraginkorra eta baliabideak.
- Herritarren atxikimendua eta hizkuntzaren aldeko jarrera eta konpromisoa.

4 Edozein hizkuntzaren biziberritze prozesuaren arrakasta bermatzeko nahitaez gertatu behar diren faktoreak dira. Joshua Fishmanen teoria *"Reversing Language Shift"* liburuan (1991).

# 6. OBJETIVO Y VALORES DEL PLAN ESTRATÉGICO

## 6.1. OBJETIVO

El objetivo del Plan Estratégico 2014-2017 es el siguiente:

- Promover las medidas necesarias para garantizar la posibilidad de vivir en euskera a los ciudadanos y ciudadanas de Álava que así lo deseen
- Para ello, se desarrollarán iniciativas de coordinación y colaboración entre agentes sociales e instituciones públicas de ámbito alavés, con el objeto de avanzar hacia la normalización del euskera a nivel personal, social y oficial.

## 6.2. VALORES

Los valores justifican los objetivos que se desean lograr mediante el plan estratégico. Por ello es de suma importancia conseguir el mayor acuerdo posible en torno a dichos valores, para que toda la sociedad lo conozca.

Siguen en vigor los criterios y principios que inspiraron la Ley del Euskera: apego al euskera, lengua propia, oficialidad del euskera, derechos de las personas, y proyecto de una sociedad bilingüe y multilingüe.

Además de todo ello, el Servicio Foral de Euskera estructura su Plan Estratégico en torno a los elementos fundamentales de un proceso de revitalización de cualquier lengua[4].

- Marco legal adecuado, que sea suficiente para posibilitar la normalización lingüística.
- Política lingüística efectiva y con recursos.
- Adhesión de los ciudadanos, actitud y compromiso a favor de la lengua.

4 Se trata de los factores que inevitablemente deben darse para garantizar el éxito en el proceso de revitalización de cualquier lengua. Teoría de Joshua Fishman en el libro "Reversing Language Shift" (1991).

Baloreek plan estrategikoaren esparrua finkatzen dute. Ekintza eta jarduera desberdinak egin daitezke esparru horren barruan baina ezin da balore horien kontra joango den jarduerarik proposatu.

Ondorengo balio hauek hartu dira oinarritzat:

1. Herritarrek Euskadiko bi hizkuntza ofizialetako edozein aukeratzeko askatasun linguistikoa sustatzea.
2. Administrazio publikoarekiko harremanetan EAEko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan harremana izateko eskubidea bermatzea.
3. Euskal gizartea komunitate linguistiko ezberdinetan zatitzeko asmoa modu aktiboan saihestea, euskararen erabilera eta ezagutza askatasunaren ikuspegitik sustatuz.
4. Jokaera sektarioak eta hizkuntzaren erabilera partidista ekidin eta ukatzea.
5. Euskararen ezagupena eta erabilera belaunaldi berrietan bermatzea. Euskal hiztunak sortzea.
6. Familia-transmisioa bermatzea.
7. Euskal hiztunen komunitatea trinkotzea.
8. Euskarazko kultura kontsumoa indartzea.
9. Euskara eta haren munduak etorkinengana hurbiltzea, hauen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko eta euskara erabilera-eremu demografikoetara hurbiltzeko xedez.
10. Hizkuntza eskubideak eremu publikoan aitortzeko ez ezik errespetatzeko bidean, euskara erabiltzeko aukerak bermatzea.

Los valores justifican los objetivos que se desean lograr mediante el plan estratégico. Las acciones y actividades se pueden desarrollar en el marco establecido pero no se podrá proponer actividad alguna que vaya en contra de dichos valores.

A continuación los valores establecidos:

1. Promover la libertad lingüística de los ciudadanos para optar por cualquiera de las dos lenguas oficiales de Euskadi.
2. Garantizar el derecho a relacionarse con la Administración Pública en cualquiera de las dos lenguas oficiales de la CAV.
3. Descartar activamente la opción de dividir a la sociedad vasca en comunidades lingüísticas diferentes, promoviendo el uso y el conocimiento del euskera desde la perspectiva de la libertad.
4. Evitar y rechazar los comportamientos sectarios y la utilización partidista de la lengua.
5. Asegurar el conocimiento y uso del euskera en las nuevas generaciones. Incrementar el número de vascófonos.
6. Garantizar la transmisión familiar.
7. Cohesionar la comunidad de vascoparlantes.
8. Fortalecer el consumo cultural en euskera.
9. Acercar el euskera y sus universos a los inmigrantes, con el fin de facilitar la integración amplia y enriquecedora de los inmigrantes y aproximar el euskera a sus ámbitos demográficos de utilización.
10. Garantizar las posibilidades de uso del euskera, tendiendo no sólo a reconocer los derechos lingüísticos en el ámbito público, sino también a respetarlos.

## 6.3. PROZESUA ETA METODOLOGIA

Gaur egungo edozein erakunde, instituzio edo enpresak bizi den inguruneari aurre egiten ikasi beharra du, bere jarduera mantendu eta hedatuko badu. Zentzu honetan, guztiz nahitaezkoa da helburuak eta berauek lortzeko bide eta estrategiak ondo jarri eta finkatzea.

Planifikazio estrategikoak erakunde batek dituen indargune, lanabes eta aukerak modurik egokienean batzeko aukera ematen du.

Arabako Foru Aldundiko Euskararen Foru Zerbitzuaren Plan Estrategikoa garatzeko metodologia egokiena hausnarketa estrategikoaren prozesuak dakarrena da.

Proiektuaren pisua hausnarketa-Lan Mahaien gain egon da, baina egindako hausnarketa Euskararen Foru Zerbitzuaren, eta Euskararen Batzordearen kideen ekarpenekin osatu da.

Plan Estrategikoa gaur egungo egoeratik abiatuko da, eta bertan oinarrituz etorkizuna irudikatzen du, iritsi nahi dugun tokira iristeko lanabesak eskainiz, eta erakundeak egin asmo duena eta egin asmo ez duena definituko duen planifikazioa diseinatzeko baliabideak emanez.

## 6.3. PROCESO Y METODOLOGÍA

Cualquier entidad, institución o empresa de hoy en día necesita aprender a afrontar el entorno en el que vive, para poder mantener y extender su actividad. En este sentido, es totalmente necesario establecer y fijar adecuadamente tanto los objetivos como las vías y estrategias para su consecución.

La planificación estratégica permite aunar de la manera más adecuada las fortalezas, herramientas y oportunidades de que dispone una organización.

La metodología más apropiada para desarrollar el Plan Estratégico del Servicio Foral de Euskera de la Diputación Foral de Álava es la derivada de un proceso de reflexión estratégica y participativa.

El peso del proyecto ha recaído sobre las Mesas de Trabajo, aunque la reflexión realizada se ha completado con las aportaciones de los miembros del Servicio Foral de Euskera y del Consejo del Euskera.

El Plan Estratégico parte de la situación actual y basándose en ella se proyecta hacia el futuro, ofreciendo herramientas para llegar al destino que deseamos y aportando recursos para diseñar la planificación que definirá lo que la institución ha decidido como objetivos.

## 6.4. HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA: HERRITARREN PARTE HARTZEA

Euskararen Foru Zerbitzuak 2014-2017 epe aldirako Plan Estrategikoa egitea hitz eman zuen, behin 2010-2013 Plan Estrategikoaren ebaluazioa burutu ondoren.

Horretarako honako pausuak eman zituen:

Parte hartze prozesu bat diseinatu zen, non lan-mahaietan bilduta 2010-2013 planaren ebaluazioa proposatzen den, ondoren, plan berria lantzeari ekiteko. Maiatzean zehar, zazpi lan-mahai bildu ziren: gazteria beren aisia eta kirola, euskalduntzea, kulturgintza, merkataritza eta ostalaritza, familia transmisioa eta irakaskuntza, komunikabideak eta IKTak eta, azkenik, administrazioa.

## 6.4. REFLEXIÓN ESTRATÉGICA: PARTICIPACIÓN CIUDADANA

El Servicio Foral de Euskera se comprometió a elaborar un Plan Estratégico para el periodo 2014-2017, una vez elaborada la evaluación del Plan Estratégico 2010-2013.

Para ello da los siguientes pasos:

Diseña un proceso participativo en el que con la misma convocatoria se propone evaluar el plan anterior 2010-2013 y comienza a elaborar el nuevo a partir de mayo en siete mesas de trabajo, juventud, ocio y deporte, euskaldunización, acción cultural, comercio y hostelería, transmisión familiar y enseñanza, medios de comunicación y las TIC y la administración.

Lehenbiziko bileran, arlo bakoitzeko bat, AMIA lantzen da (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak). AMIAren bidez, lan-mahai bakoitzean arloaren diagnostikoa ondorioztatzen da. Lehenbiziko azter aldi honetan ez da ez estrategiarik ez ekintzarik lehenesten. Ondoren, Euskararen Foru Zerbitzuak jaso eta bildu egiten du lan-mahai bakoitzean jasotako informazio guztia, bilera aktak arlo bakoitzeko partaideei bidaltzeaz batera, ideia edo zuzenketaren bat egiteko bidea irekiz. Azkenik, bilera berri baterako deia egiten zaie.

En esta primera reunión, una para cada sector, se comienza por elaborar el DAFO. A través del DAFO (Debilidades, Amenazas, Fortalezas, Oportunidades), en cada mesa de trabajo se elabora un diagnóstico por sector. En esta primera fase, no se prioriza ninguna estrategia ni ninguna acción. Posteriormente el Servicio Foral de Euskera recoge y ordena la información que ha surge en cada mesa de trabajo. Una vez ordenada y clasificada esta información de cada sector, se envàn las actas de la reunión realizada y la comunicación para la segunda reunión a las personas convocadas para que puedan a su vez, repasar y aportar de nuevo alguna idea o corrección que quieran proponer.

Ekainean zazpi lan-mahaiak biltzen dira berriro, aztergaia jarrita, eta eginkizun garbiarekin: egindako azterketatik abiatuta, arlo bakoitzerako bi helburu adostea, helburuak lortzeko estrategiak proposatzea, eta hurrengo lau urteetarako Euskararen Foru Zerbitzuak egiteko moduko ekintzak zehaztea.

En junio, los siete grupos de trabajo se vuelven a reunir, con el análisis realizado y con una tarea clara: partiendo del análisis realizado definir y acordar dos objetivos para el sector, proponer una serie de estrategias adecuadas para conseguir los objetivos, y concretar acciones que se puedan llevar a cabo los próximos cuatro años desde este Servicio Foral de Euskera.

Mahai bakoitzean atera diren bi helburu, estrategia eta ekintzen komunikazioa partaideei bidali ondoren, azken zuzenketa edo ideiak egiteko bidea irekitzen zaie, baita ekintzak lehenesteko ere.

Con el trabajo realizado en cada mesa, se envían de nuevo a cada participante el texto que incluye los dos objetivos, las estrategias y las acciones propuestas y se les invita a aportar nuevas ideas o correcciones que mejoren la propuesta. A su vez, por parte del Servicio Foral de Euskera, se solicita que propongan prioricen las acciones para los próximos cuatro años.

Lan mahai hauetan guztira hirurogeita hamar eragiletik gora aritu dira arloko bina bileratan.

En estos grupos de trabajo han participado más de setenta personas a largo de las dos sesiones organizadas.

Azkenik, Arabako Foru Aldundiko gobernu taldeak Diputatuen Kontseiluan onartzen du 2014-2017 Plan Estrategikoa 2014ko azaroaren 25ean.

Finalmente, el equipo de Gobierno de la Diputación Foral de Álava aprueba en el Consejo de Diputados el Plan estratégico 2014-2107 el 25 de noviembre de 2014.

## 6.5. ESPARRUAK

Plan Estrategikoaren esparruak zehazteko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak (EBPN) proposatzen dituen esparruak erabili dira Arabako errealitateari egokituz.

Helburuak eta estrategiak finkatzeko Arabako esparru hauei erreparatzea proposatu da eta lan mahaiak esparru hauen arabera osatu dira:

## 6.5. AMBITOS DE ACTUACIÓN

Para determinar los ámbitos del Plan Estratégico se han utilizado los ámbitos propuestos por el Plan General de Promoción del Uso del Euskera (PGPUE), adaptándolos a la realidad de Álava.

A la hora de fijar objetivos y estrategias se ha propuesto trabajar los siguientes ámbitos, constituyéndose las mesas de trabajo en función de estos ámbitos:

- Gazteak, aisia eta kirola
- Helduen euskalduntzea
- Kulturgintza
- Arlo sozioekonomikoa
- Familia transmisioa eta irakaskuntza
- Komunikabideak eta IKT-ak (informazio eta komunikaziorako teknologia berriak)
- Administrazioa

Ondoren, esparru bakoitzean adostutako diagnostikoa, helburuak, estrategiak eta ekintzak azalduko dira.

- Juventud, ocio y deporte
- Euskaldunización de adultos
- Actividad cultural.
- Ámbito socioeconómico.
- Transmisión familiar y enseñanza.
- Medios de comunicación y TICs (Tecnología de la Información y Comunicación).
- Administración.

A continuación se exponen el diagnóstico, los objetivos, las estrategias y las acciones consensuadas en cada ámbito.



## 6.6. HELBURUAK, ESTRATEGIAK ETA EKINTZAK

### 6.6.1. GAZTERIA, AISIA ETA KIROLA

#### DIAGNOSTIKOA

Erakundeen arteko lankidetza estuari esker (Euskararen Foru Zerbitzua, aisia enpresak, elkarteak, Berritzeguneak...) fruituak ematen ari dira, baina sektoreko eta arautu gabeko hezkuntzako arduradunekin lanean aritzeko mahaian jarduteko zeharlerroak behar dira, euskararen erabilera hazteko ikastaroak antolatzeko lankidetza egon dadin (hizkuntza irizpideekin eta baliabide egokiekin indartuko diren estrategiak eta helburuak).

Hezitzaile eta dinamizatzaile askok oraindik ere euskaraz aritzeko gaitasun txikia dutela edo behar adina sentsibilizatu gabe daudela ikusten da; hori dela eta, aisiako enpresek neurriak hartu beharra daukate eta begiraleen trebakuntza hazi eta eguneratu beharra dago.

Bestalde, gazteentzako erreferentziazko jarduerak programatzeko zailtasunak aztertu beharra dago eta euren lehentasunak jasotzeko komunikazio bideak aurkitu behar dira. Administrazioaren edo ikastetxeen aisiako eskaintza ebaluatu egin behar da, hizkuntza irizpideak bete diren kontuan izan behar da, espektatibak bete diren ikusteko eta etorkizunean hartzaile elebidunen beharretara egokitzeko.

Aisiako programatzaileen eta kirol, gazteria... zerbitzuen arteko zeharlerrotasuna aktibatu beharra dago, programa publiko batzuek Arabako ikastetxe guztiak hartzen baitituzte eta gazteengan eragin handia dute.

#### 1. HELBURUA: Hizkuntza normalizazioan lerro berritzaileak lantzea begiraleak trebatzeko ikastetxeentzat, aisialdi elkarteentzat eta kirol federazioentzat.

#### ESTRATEGIAK

- Trebakuntza ikastaroak sortzen lagundu.

## 6.6. OBJETIVOS, ESTRATEGIAS Y ACCIONES

### 6.6.1. JUVENTUD, OCIO Y DEPORTE

#### DIAGNÓSTICO

La estrecha colaboración entre diferentes entidades (Servicio Foral de Euskera, las empresas de ocio, las asociaciones, los Berritzegunes…) viene dando sus frutos, pero son necesarias líneas transversales de actuación en una mesa de trabajo con los responsables del sector y con los de la educación no reglada, para colaborar en la creación de cursos con objetivos específicos para aumentar el uso del euskera (estrategias y objetivos que sean reforzados con criterios lingüísticos y recursos adecuados).

Se observa que la capacidad de gran parte de las personas educadoras y dinamizadoras en euskera todavía es limitada, o no está lo suficientemente sensibilizada, para lo cual es preciso que las empresas de ocio adopten medidas en tal sentido y se amplíe y actualice la formación al monitorado.

Por otro lado, es preciso analizar las dificultades para programar actuaciones referenciales para la juventud, y buscar canales de comunicación para recoger sus preferencias. Hay que evaluar la oferta de ocio por parte de la Administración o de los centros de enseñanza, para conocer si se han cumplido los criterios lingüísticos, y adecuarla, en su caso, a las necesidades del público bilingüe en un futuro.

Se debe activar la transversalidad entre programadores de ocio, Servicios de Deporte, Juventud… pues existen programas públicos que abarcan a todos los centros escolares de Álava, con gran incidencia en la juventud.

#### OBJETIVO 1: Trabajar lineas novedosas en la normalización lingüística dirigidas a las escuelas de formación del monitorado, a las asociaciones de tiempo libre y a las federaciones deportivas

#### ESTRATEGIAS

- Ayudando en la creación de cursos de formación.

- Sektoreko arduradunekin (gazteria, kirola, berdintasuna, immigrazioa, aisiako enpresak...) horretarako sortutako lanerako mahaian jarduteko zeharlerroak koordinatu.

- Arautu gabeko hezkuntzako arduradunekin sortutako lanerako mahaietan jarduteko zeharlerroak koordinatu eta euskara erabiltzea berariazko xede duten ikastaroak bultzatzen lagundu.

## JARDUERAK

1. Aisia eta kirol begiraleentzako eskolen eta trebakuntza ikastaroen mapa egin.
2. Arautu gabeko eskoletan, aisia elkarteetan eta kirol federazioetan hizkuntza normalizazioa lantzeko lerro berriak proposatu.
3. AFAren baliabideak eskaini (egiturak, trebakuntza, argitalpenak, dibulgazioa...).
4. Aisia eta kirol arloko lan mahaian euskararen ezagutza eta erabilerari buruz egindako jardueren diagnostikoa egin.
5. Euskararen ezagutza eta erabilerari buruzko berariazko edukiak eguneratzeko jardunaldiak begiraleentzat.

## 2. HELBURUA: Gazteei aisia eta kirola euskaraz eskaintzea.

## ESTRATEGIAK

- Kuadrilla eta udaletan begiraleen lan poltsak sortu eta eguneratu.

- Tokiko eragileekin lan egin (guraso elkarteekin, begiraleekin, gazte dinamikoekin...).

- Praktika onak partekatu eta zabaldu.

- Coordinando lineas transversales de actuación en la mesa de trabajo para ello creada con responsables del sector (juventud, deporte, igualdad, inmigración, empresas de ocio…)

- Coordinando lineas transversales de actuación en la mesa de trabajo para ello creada con los responsables de la educación no reglada, y ayudando a potenciar cursos con objetivos expresos de uso del euskera.

## ACCIONES

1. Elaboración del mapa de las escuelas y de cursos de formación para monitorado de ocio, tiempo libre y deporte.
2. Propuesta de nuevas lineas para trabajar la normalización lingüística en las escuelas de educación no reglada, en las asociaciones de tiempo libre y en las federaciones de deporte.
3. Aportación de recursos de la DFA (estructuras, formación, publicaciones, divulgación…).
4. Elaboración de un diagnóstico de las actividades sobre conocimiento y uso del euskera, llevado a cabo en la mesa de trabajo del ocio y del deporte.
5. Jornadas para la actualización de contenidos específicos sobre conocimiento y uso del euskera para monitores/as.

## OBJETIVO 2: Ofrecer ocio y deporte en euskera a la juventud.

## ESTRATEGIAS

- Creando y actualizando las bolsas de trabajo de monitores/as en las Cuadrillas y ayuntamientos.

- Trabajando con agentes locales (asociación de madres y padres, monitores/as, jovenes dinámicos/as…).

- Compartiendo y difundiendo las buenas prácticas.

- Gazteak euren buruen erreferente izan eta aliatu bihurtu.
- Komunikazioaren teknologia berriak erabili.
- Gazteen iritzia eta motibazioa gogoan izan.
- Gazteek aintzat hartzen dituzten elkarteekin lankidetzan aritu.

### JARDUERAK

1. Tokiko lan poltsak sortzeko eta eguneratzeko baliabideak eskaini (sarean, argitalpenak...).
2. Guraso elkarteei hizkuntza baliabideak eskaini (laguntza liburuak, trebakuntza, gidak...).
3. Tokiko gazteen iritziak, jarduerak eta proiektuak euskaraz hedatu.
4. Aisia eta kirol arloko diru laguntza deialdiak aztertu eta dagokion Zerbitzuarekin irizpideak adostu, euskarazko eskaintza hazteko.
5. Gazteentzako mintzalagun lerroak sustatu.

## 6.6.2. HELDUEN EUSKALDUNTZEA ETA ALFABETATZEA

### DIAGNOSTIKOA

Profesionalek osatzen duen sektorea krisian zaildua da eta eboluzio malgua erakutsi du. Hainbat sektorerekin koordinazioan aritzea eta planifikazio estrategikoa lagungarria da izatea sektoreari etorkizunerako jarraibideak aurkitzeko, azkenaldian diru laguntzen oso menpe baitago. Eragile desberdinen arteko koordinazioa (euskara arloko teknikariak, elkarteak eta euskaltegiak) oinarrizkoa da erabilera alor berrietara hedatzeko (gazteria, gurasoak, kultura, kirola, aisia, sozioekonomia...).

- Buscando que la juventud sea referente de sí misma y convirtiéndola en aliada.
- Utilizando las nuevas tecnologías en la comunicación.
- Tomando en consideración la opinión y motivación de la juventud.
- Colaborando con las asociaciones que la juventud toma en consideración.

### ACCIONES

1. Aportación de recursos para la creación y actualización de bolsas de trabajo locales (en la red, publicaciones...)
2. Aportación de recursos lingüísticos a las asociaciones de padres y madres (libros de ayuda, formación, guías….)
3. Difusión de las opiniones, de las actividades y de los proyectos en euskera de la juventud local.
4. Analisis de las convocatorias de subvención de ocio y deporte y búsqueda de criterios consensuados con el Servicio correspondiente para aumentar la oferta en euskera.
5. Fomento de las lineas de mintzalagun para la juventud.

## 6.6.2. EUSKALDUNIZACIÓN Y ALFABETIZACIÓN DE ADULTOS

### DIAGNÓSTICO

El sector está formado por profesionales que ante la crisis y otras situaciones difíciles muestra una evolución flexible. La coordinación con diversas instituciones y la planificación estratégica ayuda a encontrar nuevas pautas de futuro para el sector, últimamente en exceso subordinado a las subvenciones. La coordinación entre diversos agentes (personal técnico de euskera, asociaciones, y euskaltegis) es clave para ganar nuevos ámbitos de uso (juventud, padres-madres, cultura, deporte, ocio, socio-economía…).

Euskaltegien eskaintza anitza izaten da eta mintzalagun programen arrakasta erabiltzen dute euskalduntze prozesuan aurrera egiteko. Era berean, euskaltegien eskaintza gero eta malguagoa da, euskalduntze prozesuetako formazio osora zurrun lotu gabe, eta aukera sorta zabalagoa eskaintzen saiatzen dira komunikazioa helburu, hiztun berriak lortzeko (euskaldun pasiboak), hobeto ulertzeko eta hitz egiteko (jendea artatzeko, gurasoak, A, B eta D ereduetako ikasleak...).

Euskaltegiek eta horietako balizko taldeek (hezkuntza komunitatea, Aisa, mintzalagun, merkataritza eta ostalaritza...) partekatu behar lukete buruzagitza, eta komenigarria da, halaber, euskararen erabileraren sustapenean euskalduntze sektoreak duen garrantzia indartuko duten diskurtsoak egotea.

## 1. HELBURUA: Helduak alfabetatzen eta euskalduntzen aritzen den sektorea indartzea.

### ESTRATEGIAK

- Erakunde arteko lanerako mahaia sortu eta 2014-2017rako diru laguntza sistema aztertu eta garatu.
- Lanerako mahaiko erakunde bakoitza hartutako lehentasunen arduradun egin.
- Ikasleen aukera berriak aktibatu (administrazioa, familia, merkataritza, kirola, komunikazioa...).
- Liderrek hizkuntza jarrera berriak hartu.

### JARDUERAK

1. Euskaltegirik ez dagoen tokietan on-line ikastaroak sustatu.
2. Hasierako mailetan matrikulazioa hazteko neurri lagungarriak hartu.

La oferta de los euskaltegis tiende a ser diversa y se sirve del éxito de los programas de mintzalagun para avanzar en el proceso de euskaldunización. Del mismo modo, la oferta de los euskaltegis se muestra cada vez más flexible a tendencias no tan encaminadas a los procesos de euskaldunización con todo el currículo formativo, sin abrir el abanico de posibilidades que tenga como objeto la comunicación, la búsqueda de nuevos hablantes (euskaldunes pasivos), perfeccionando la comprensión y el habla, (perfiles de atención al público, padres y madres, alumnado del modelo A, B, y D)…

Se ve necesario compartir el liderazgo entre euskaltegis y grupos potenciales de los mismos (comunidad educativa, Aisa, mintzalagun, comercio y hostelería…), de la misma forma que es conveniente construir discursos que refuercen la importancia del sector de euskaldunización en la promoción del uso del euskera.

## OBJETIVO 1: Fortalecer el sector dedicado a la alfabetización y euskaldunización de adultos.

### ESTRATEGIAS

- Creando una mesa de trabajo interinstitucional y analizando y desarrollando un sistema de subvención para 2014-2017.
- Responsabilizándose cada institucion que comparte la mesa de trabajo de los compromisos adquiridos.
- Activando nuevos potenciales de alumnado (administración, familia, comercio, deporte, comunicación…).
- Creando nuevos comportamientos lingüísticos por parte de los lideres.

### ACCIONES

1. Fomento de cursos on-line en aquellas zonas donde no existen euskaltegis.
2. Adopción de medidas que ayuden a incrementar la matriculación en niveles iniciales.

3. Elebidun hartzaileek taldearen potentzialari erantzuten laguntzeko neurriak hartu.

4. Elebidun hartzaileek arabar gizartean duten zeregina aitortu.

5. Iraupen laburreko euskara ikastaroei laguntza bereziak emateko proposamena.

6. Euskaltegien profesionaltasuna aitortzeko baliabide sostengua.

7. Mota askotako ikastaroen eskaintzarekin jarraitu eta sakondu (hiztun berriak aurkitzeko programak...).

8. Euskara ikasteko laguntza/beka lerroarekin jarraitu.

9. Erakunde arteko sektore mahaiaren parte hartzea eta koordinazioa eta horko lan lerroen planifikazioa.

10. Euskaldun hiztun berriaren jarrera positiboak hedatu.

3. Adopción de medidas que ayuden a responder al potencial que representa el grupo de euskaldunes pasivos.

4. Reconocimiento del papel de los euskaldunes pasivos en la sociedad alavesa.

5. Propuesta de ayudas excepcionales a los cursos de euskera de corta duración.

6. Apoyo para que se reconozca la profesionalidad de los euskaltegis.

7. Continuar y avanzar con la oferta de cursos variados (programas de búsqueda de nuevos hablantes...).

8. Continuar con la línea de subvención/ beca para aprendizaje de euskera.

9. Participación y coordinación de la mesa sectorial interinstitucional y su correspondiente planificación de lineas de trabajo.

10. Difusión de las actitudes positivas del nuevo hablante de euskera.

## 2. HELBURUA: Euskararen ezagutza eta erabilera lotzea

### ESTRATEGIAK

- Lan mahaitik datorren komunikazio plana egin.
- Euskalduntzeari erantzungo dioten mezuekin bat etorri (integrazioa, elebitasuna, elkarbizitza, ulermena...).
- Mintzalagun programen ereduak aintzatetsi.
- Hizkuntza ohitura berriak sortu, euskaldun pasiboen ezaugarriak gogoan izanaz.
- Saio pilotuak sustatu.

## OBJETIVO 2: Vincular el conocimiento del euskera con su uso.

### ESTRATEGIAS

- Realizando un plan de comunicación que derive de la mesa de trabajo.
- Correspondiendo con mensajes que respondan a la euskaldunización (integración, bilingüísmo, convivencia, comprensión….).
- Reconociendo los modelos de programas mintzalagun.
- Creando nuevas costumbres lingüísticas que tomen en consideración la característica de los euskaldunes pasivos.
- Llevando a cabo una promoción de sesiones piloto.

## JARDUERAK

1. Agintari publikoen lidergoan hizkuntza indizea aktibatu (hizkuntza jokaeraren planifikazio lerroak eman).
2. Saioak antolatu euskara lanerako tresna legez aurkezteko.
3. Gizartearen eta euskaltegien arteko lotunea indartu, *mintzalagun* taldeen bidez.
4. Euskara maila desberdinetan erabiltzeko espazioak sustatu.
5. Sektore desberdinetako berariazko ikastaroak sustatu, Arabako Foru Aldundiaren, Kuadrillen, Udalen eta euskaltegien arteko lankidetzarekin.
